

## Gazta eta sagardoaren mendia proiektua aurkeztu da



Zerain Dezagun Fundazioak *Gazta eta sagardoaren mendia* izeneko proiektu berria aurkeztu zuen martxoaren 17an, herritarren nahiz komunikabideen aurrean. Aurkezpen ekitaldian Zerain Dezagun Fundazioko eta Zeraingo Udaleko arduradunetz gain, Jon Uriguen, Landa garapen, berrikuntza eta turismoko foru diputatua, Ikerne Badiola, Kultura, gazteria eta kiroltako foru diputatua, Fermin Leizaola (etnografoa), Ibon Aburuza (Gipuzkoako sagardogile Elkarteko Lehendakari ordea), Unai Agirre (Gipuzkoako sagardogile Elkarteko teknikaria), Pui Arrieta (Artzain-Gazta elkarteko ordezkaria) Zeraingo gaztagile eta sagardogileak eta Zeraingo herritarrak izan ziren.

Zeraingo lehen sektorean ditugun bi produktu preziatu, gazta eta sagardoa, lotu dira turismoaren arloan gastronomiak duen pisuari erantzun egokia eman nahita. Horrela sortu da *Gazta eta sagardoaren mendia* proiektua. Honen baitan hainbat egitasmo diseinatu dira. Martxoaren 1etik hasita, adibidez, ostiral eta larunbat iluntzetan doako autobus

zerbitzua jarri dute Oiharte eta Otatza sagardotegietara joateko (bezeroentzat doakoa izan dadin sagardogileentzat ez da hala). Autobus zerbitzuak izan duen harrera ona ikusita, apirilean ere luzatuko da eskaintza. Bestalde, herriko museoari lotuta, kultur etxean *Gazta eta sagardoaren mendia* erakusketa jarri da. Bestalde, dagoeneko egin dira hainbat sagardo kata eta gazta kata herritarren artean, eta eskaintza hori bisitariei ere eskainiko zaie aurrerantzean. Gaztagintza eta sagardogintza prozesuak ikusteko aukera ere egongo da. Eta guztia azaltzeko, hainbat ikus-entzuzko produktu ere sortu dira.

Proiektuaren aurkezpen ekitaldian, aurtengo gazta eta sagardo berria ere aurkeztu ziren. Herriko artzain eta sagardogileek gazta eta sagardo berriak eraman zituzten, eta bertan elkartutako agintari nahiz herritarrek gazta eta sagardo berria dastatzeko aukera eduki zuten. Fermin Leizaola etnografoak izan zuen gazta berria zatitzeko eginkizuna, eta bikain egin zuen zeraindarron lagun zaharrak.

# Zeraingo herri-proiektua babestu eta kontrako erasoak salatu ditu herritar talde handi batek

Martxoaren 15 arratsaldean, Zeraingo herritar talde handi bat (70 lagun inguru) plazan elkartu, eta publikoki Zeraingo herri-proiektua babesteko eta haren kontrako erasoak salatzen adierazpena irakurri zuten. Ondoren, adierazpen horri atxikipena emateko 120 herritar baino gehiagok sinatu dute dokumentua. Hau da irakurri zen adierazpena:

“Gure herrian, Zerainen, gaur dugun ongizatea eta egoera lortzeko, azken 30 urteotan herri-proiektu bat landu dugu herritarron arteko auzolanean oinarrituta. Azken hilabeteotan herri-proiektu horren aurka eta auzolanean oinarritutako funtzionatzeko gure ereduaren kontra hainbat eraso ari gara jasaten herri barruan. Eraso horiek Zerainen etorkizunerako mehatxu argia direla ikusita, eta gure herriaren iraganarekin, orainarekin eta geroarekin konprimetututa gaude-nez, honakoa adierazten dugu:

1. Guztiz salatzen ditugu gure herri-proiektuaren eta funtzionatzeko ereduaren kontra herri barruan izaten ari garen etengabeko erasoak, zuzenak eta zeharkakoak. Ez dugu onartzen elkarrizketa erabili ordez etxe guztietara dokumentu anonimoak zabaltzea eta dauden gunetan lan



egin ordez, aparteko gune paraleloak sortzea kontra egite hutsagatik.

2. Zerainen azken 30 urteotan egin den bidea babesten dugu, garatzen ari garen herri-proiektuarekin bat gatzoz eta urte hauetan guztietan modu batean edo bestean herriaren alde aritu direnen lana aitortzen dugu. Badakigu gauza asko hobetu daitezkeela, baina horretarako oinarria dagoena eta egin dena aitortzea da, eta ez guztia errotik aldatzea.

3. Iragan hurbilean egin den bezala, Zerainen oraina eta etorkizuna eraikitze bide onena herritarron auzolana dela uste dugu. Horretarako, orain arte egin den bezala, herrigintza ideologia eta

alderdikeria politikoez gaindik egin behar dela uste dugu.

4. Babesa ematen diegu momentu honetan herriaren alde ardurako lekuetan lanean ari diren herritarrei, herri-proiektuaren eta ereduaren kontrako eraso zuzenenak haiek jasan baitituzte.

5. Zerainen alde, lehen bezala orain eta orain bezala gero, lan egiteko gure konpromisoa berresten dugu. Auzolanean, gu guztioak eta hala nahi duten gainontzeko herritarrek, elkarrekin Zerainen eta gure etorkizuna eraikitzen jarraituko dugu.

Zerain lehen, orain eta gero!  
Zerainen, 2012ko martxoaren 15ean.”



## Inauteri giroan

Otsailaren 20an, inauteri astelehenean, eskolan haurrek egindako antzerkia ikusi ondoren, haurrak mozarrotu eta merienda goxoa egin genuen Maixunen haur, gazte eta herritarrek.

Basarte Guraso elkarteak

## Deklarazioa euskaraz egiteko kanpaina

Goierriko udalek *Deklarazioa, aukeran euskaraz* kanpaina jarri dute martxan goierritarrok errenta aitortpena euskaraz egitera anima gaitzen. Horretan laguntzeko udalek laguntza emango dute euskarazko inprimakiak eta esku-orriak eskura jarrita.

## Goi-tentsioko kablearen kontrako mendi martxa

Apirilaren 5 eta 8 artean mendi martxa antolatu du goi-tentsioko kablearen kontrako plataformak Nafarroako lurretan. Informazioa: 681001114.



## Prepezio

A rgi eta zehatz proposatu dit lagun zaharrak hil honetako hitza. Hala esan dit Xantik aurreko batean, telefonoz: "hurrengo, Mikel, zer moduz *prepezio*?" Nik baietz, konforme naizela, eta horrela heldu diot gaiari. Gai laburra da ordea gaurkoa: gutxitan bezain laburra. Sartu naiz izan ere hiztegiara, "alimentsu" bila, eta bi lerro bakarrik aurkitu ditut. Honako lerro hauek: *perpeziño* (V-gip), *prepezio* (G-azp). "Facilidad, buena mano. Eskulanetarako *perpeziño* aundixa dauka Julenek (Elexpuru, Bergara). En G-azp se dice sobre todo referido a los niños." Hiztegi "V-gip" hori badakizue zer den: Deskargako gaintetik aurrera, Antzuolan behera, hasten den dot-esparrua; Deba goiena eta erdia, batez ere. Hots, Gipuzkoako bizkaieraren eremua. Hiztegi "G-azp" horrek, berriz, Azpeiti aldean egiten den euskara esan nahi du: Azpeiti aldeko gipuzkera. Goierrri ez da hor aipatzen: Zerain are gutxiago. Bistan da, ordea, hemen ere ezaguna dela hitza. Konkretuki Azpeiti aldeko forma, ez Bergarakoa, erabiltzen da herrian: *prepezio*. Bizkaieraz, berriz, *prepeziño* da forma erabiliena.

Hitza nondik datorren bistan da: latinetik, *perfectio*, *perfectionis*-etik. Nondik barrena etorri den besterik da: latin-latinetik ez bada latin-erromantzetik, gaztelaniatik, iritsia izango dugu seguruen hegoaldean. Iparraldean ere bada hitz horren parekorik: *perfekzio*, *perfezio*, *perfekzione*, *perfektzione*, *perfezione*, *perfekzino* eta abar. Liburu bidez iritsia izango da gugana, hainbat kasutan, forma bat zein beste. Eliza-liburuen bidez etorria dela esango nuke, lautatik hirutan gutxienez.

Nondik eta nola etorri den gauza bat da ordea, eta non dagoen bestea. Kontua da bere bidea egin duela *prepezio* hitzak, menderik mende, eta etxekotu egin zaigula aspaldidanik. Maileguzko hitz bihurturik, ahoz aho dabil gure artean: hala dabil, zehatzago esanik, adin batetik gorako artean. Zer adieratan darabilte adin batetik gorako euskaldun horiek *prepezio* edo *prepeziño* delakoa? OEhko azalpenak,

eta Bergarako adibideak, muin-muineira garamatzate: "facilidad, buena mano" esateko erabiltzen da *prepezio*, *prepeziño*. Pertsona batek zenbait gauza egiteko duen abildadea, trebetasuna edo aparteko gaitasuna adierazten du *prepezio* horrek. Orain "konpetente", "kapaz", "manitas bat" esaten dugun hori da, edade batetik gorako artean, *prepezio* handiko emakumea, *prepeziozko* gizasemea, neska edo mutila. Azpeitian jasoa omen den beste ezauzgarria, batez ere umei buruz esaten omen denekoa, ez dirudi Zerainen egia denik. Edade guztietako pertsonak izan litezke hemen *prepezio* handikoak edo batere *prepeziorik* gabeak. Trebeziak eta trebetasun faltak ez dute gure artean adin-mugarik, puntu horri dagokionez behintzat.

Galtzen ari da ordea hitza. Adin-muga non dago? Xantik eta Ionek honela esan didate: "Gutxi gorabehera 50-60 bat urte inguruan egon daiteke muga. Hortik behera ulertu askok, baina erabili ia inork ez".

Zergatik ari da galtzen? Betikora natorrela esango duzue: gizartearen aldakuntza teknologikoa astintzen hasiko naizela gaurkoan ere. Ez, bada. Oraingoan ez da horrela: *prepezio* hitza galtzen ari bada, eta galtzen ari da itxura osoz, ez da tramankulu zaharra delako eta, tramankulua galtzeaz bat, haren izena ere galtzen ari delako. Kontua ez da hori. Lehen bezain garrantzitsua da, orain ere, nor bere gaian trebe edo kapaz izatea. Are gehiago: unibertsitate-ikasketak egiten ari dira gero eta zeraindar gazte gehiago. Inor baino argiago dakite gazteok beren jakite-esparru profesionalean edo akademikoan "trebe" izatea, "gai" izatea, "konpetente" izatea edo "kapaz" izatea zein inportantea den (badirudi, aldiz, unibertsitate-alorra eta "manitas bat" izatea gauza bi direla oraingoz). Deigarria da beraz, alde horretatik, tre-

bezia-gaitasunak hain gogoan dituen belaunaldi euskaldun gazteak zein bazterturik duen hitza: justu adiera hori duen eta bere gurasoek barra-barra erabili (erabiltzen?) duten *prepezioa*. Behar-beharrezko hitza da, eta baztertzen ari gara.

Zergatik? *Prepezio* hitzak erdal kutsu nabaria duelako? Adin batetik beherako euskaldun-jendeak, liburuetako euskararekin lehen kontaktua izan duen eta hein batean alfabetaturik dagoenak, bere euskaltasunari balore positibo argia aitortzen diolarik erdal kutsuko hitzak ahal delarik alde batera uzten dituelako? Egia da hori, zenbait hitzetan, baina ez dut uste egia denik kasu honetan. Kontrakoa da oraingoan, itxuraz, nagusi: inork ez du esan "manitas bat" izatea euskaldunago denik *prepezio* handiko gizakia izatea baino. Lehenengo forma hedatzen ari da ordea, bigarrenaren kaltean, gazte-jendearen artean. Hain-hain gazte ez garenok ere ez ote gaude dagoeneko "manitas bat dek hori" esatera jarriak? Ez ote zaigu dagoeneko *prepezio* hitza arrotz eta xahar gertatzen hasi? Guk esaten ez badugu, berriz, nondik espero da gazteek ikastea eta erabiltzea? Eskola-liburuetan egon seguru ez dutela hitz hori ikasiko. Telebistan ere apenas. Beraz? Beraz betikoa: ondo ez dakigun motiboengatik, baina abiada bizian, zenbait mende gure artean izandako hitza, eta hitzarekin batera mundua azaltzeko eta irudikatzen molde berezia, galbidean doaz. Negar egin dezakegu, lantu josten hasi edo aldaketa bikorra bere horretan asumitu. Kontua da zeraindar gazteek, bai profesionalki trebeek eta bai honetan edo hartan "manitas" direnek ez dutela *prepezio* handirik behar euskaraz hitz egiten jarraitzeko. Eske orain gauzak diferente dira.

Mikel Zalbide

### Hutsen zerrenda

XaguArtearen 74. alean, Liztormendiko mus txapelketaren garailearen izenean akatsa egon zen. Irabazleak

Milagros Aranburu eta haren alaba izan ziren. XaguArtearen izenean akatsak sortu dituen eragozpenengatik barkamena eskatu nahi dugu.



## Xagu-txoko



Babesetik

OTSAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
			<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
Euria (l/m)			11	9,5	0	3	18
C° altuena			7	1,5	1	4	8
C° baxuena			6	0	-3	-5	1
	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>
Euria (l/m)	12	2	2	0,25	0	0	0
C° altuena	6	4	0	1	6	3	3
C° baxuena	4	0	-3	-1	0	-3	-5
	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>
Euria (l/m)	1,5	3,5	11	9	1,5	0	4
C° altuena	5	6	8	9	8	11	9
C° baxuena	-0,5	3	1	5	4	-1	5
	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	12	10	11	13	14	10	12
C° baxuena	-1	-2	-3	-1	3	4	8
	<b>27</b>	<b>28</b>	<b>29</b>				
Euria (l/m)	0	0	0	GUZTIRA: 88,25 l.			
C° altuena	12	14	19	ALTUENA: 19°			
C° baxuena	7	1	4	BAXUENA: -5°			

## Otsaila hil beltza bihurtu zen

Urtarrilean ez genuela oso neguko eguraldia eduki esan genuen aurreko XaguArtean. Otsailak ordea, aurreko hilaren izana bereganatu eta neguaren beltzasun guztia ekarri zuen berekin. Hilaren hasieratik elurtea, izotza eta hotza gailendu ziren. Zerapeko egunak dozena bat izan genituen eta beroenak 6 gradutik pasa gabekoak beste hainbeste. Otsailean negua heldu zen.



### Gazta kata

Gazta eta sagardoaren mendia proiektuaren baitan, herritarrentzako gazta kata antolatu zen martxoaren 30ean. Proiektuaren aurkezpen egunean, berriz, martxoaren 17an, Zerain Dezagun Fundazioak bazkaria prestatu zuen herriko artzain, sagardogile eta Fundazioko bazkide eta laguntzaileekin.



### Fundazioaren bazkaria

## Urrezko aizkorako saioa apirilaren 15ean

Apirilaren 15ean, Urrezko Aizkorako saioa izango dugu Zerainen. Beste aizkolarien artean, Xabier Dorronsoro herritarra ere izango dugu lehian. Izan ere, aguazilak martxoaren 31n Gueñesen (Bizkaia) jokatu zuen kanporaketan aurrera egin zuen. Ea herritarrok animoekin laguntzen diogun!

## Partzoneriko egur-loteak

Aurten ere su-egurretarako loteak eskaini ditu Partzoneriak kide diren herrietako biztanleentzat. Egur tona 42,07 € kostako zaio erosleari etxeraino eramanda eta gutxienez 15-16 tona (kamioikada bat) erosi beharko du. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena apirilaren 27a baino lehen.

## Aste Santuko elizkizunak

Ostegun Santuan arratsaldeko 5etan izango da ospakizuna, Ostiral Santuan arratsaldeko 4etan. Eta Pazko egunean 11etan egingo da Jaunaren Biztuerako bazko-jaiak.